



euskara indarberritzeko
eta euskaldunok ahalduntzeko
marko estrategikoa

**Anoetan euskara
indarberritzeko
eta euskaldunok
ahalduntzeko
marko
estrategikoa**



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**

1	Sarrera	3
2	AROA diseinatzeko prozesua:.....	4
2.1	Prozesua diseinatzea:	4
2.2	Diagnostikoa egitea:	4
2.3	Galdetegia bidaltzea eta datuak jasotzea:	4
2.4	Herritarren parte hartze saioak:.....	4
2.5	AROA plana diseinatzea:	4
3	Diagnostikoa	6
3.1	Anoetako datu demografikoak eta ekonomikoak.....	6
3.2	Anoetako datu soziolinguistikoak.....	8
3.3	Herritarren iritzia euskarak duen egoerari buruz.....	18
3.4	Orain arteko plangintzaren balorazio kualitatiboa	20
4	AROA 2024-2034	22
4.1	Nahi estrategikoa, misioa eta ikuspegia.....	22
4.2	Ardatz estrategikoak, erronkak, lan ildoak, ekimenak eta ekintzak.....	23

1 SARRERA

Anoeta udalerri euskalduna da, hau da, herritarren % 70a baino gehiago euskalduna da eta horietako askok darabilte euskara eroso eta modu arruntean eguneroko bizitzan. Gainera, Anoetako Udala UEMAko kide da.

Azken urteetan, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) martxan egon da udalerrian eta aurten plan horren hausnarketa prozesua egin du egungo egoera zein den aztertu eta, horren arabera, Eusko Jaurlaritzak proposatutako AROA marko berrira egokitutako plangintza berria diseinatzeko. Egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta aurrera begirakoak diseinatu dira prozesu honetan. Udalak abiatu du prozesua UEMAren aholkularitzarekin eta hainbat herritarrekin batera.

Txosten honetan ibilbide horren gako garrantzitsuenak jaso dira: alde batetik, 2024-2034 aldirako euskara plana diseinatzeko egin den prozesua (metodologia, diagnostikoa, prozesuan jasotako edukia) eta, bestetik, Anoetan euskararen erabilera areagotzeko aurrera begira dituen erronkak eta landu beharreko ildoak eta ekintzak.

Plana osatzeko bidea bera aberasgarria izan da, herritarrekin batera lan egin delako eta, batez ere, lanketa horrek aukera eman duelako euskara plana aurrera eramateko antolaketaren eta egituren inguruan hausnartu, zenbait herritar aktibatu eta proposamen berriak sortzeko. Esan genezake horixe dela prozesu honek eta plan berri honek ekarri duen berritasun nagusia: gobernantzaren arloa. Azken batean, AROA elkarlanerako proposamen marko bat da, erakunde nahiz eragile sozialen arteko lankidetzaren sustatzen duena, eta Anoetan ere hor jarri beharko da bereziki arreta eta indarra plangintzaldi honetan.

2 AROA DISEINATZEKO PROZESUA:

Honako hauek izan dira plana diseinatzeko jarraitu diren pauso nagusiak: Talde Eragilea osatzea, prozesua diseinatzea, aurrediagnostikoa egitea, galdetegia bidali eta ustiatzea, parte hartze saioa egitea eta proposamena jasotzen duen txostena egin eta kontrastatzea.

2.1 PROZESUA DISEINATZEA:

Lehenik eta behin, AROA diseinatzeko prozesua adostu da. Talde Eragilean eman da urrats hori, eta parte hartu dute Anoetako Euskara Batzordeko kideek (euskara teknikariak, euskara zinegotziak eta UEMako teknikariak). Honako puntu hauek zehaztu dira lehengo pauso honetan:

- Prozesuaren kronograma.
- Galdetegia zabaltzeko zein bide erabili.
- Saio irekira zein pertsona gonbidatu.
- Komunikazioa nola egin.

2.2 AURREDIAGNOSTIKOA EGITEA:

Behin prozesua adostuta, Anoetako egoeraren diagnostikoa egiteko aurrez eskura ditugun datuen bilduma egin da: soziolinguistikoak, bilakaera demografikoari lotutakoak, hezkuntzari lotutakoak, ikus-entzunezkoen kontsumoa... Ostean, galdetegitik ateratako datuekin eta parte hartze saioko ekarpenekin osatu da diagnostikoa.

2.3 GALDETEGIA BIDALTZEA ETA DATUAK JASOTZEA:

Herritarrei galdetegi bat bidali zaie euskararen egoerari buruz duten iritzia jasotzeko. Euskarazko galdetegia zabaldu da herrian, eta horrez gain, online bidez ere erantzuteko aukera eman da, ahalik eta herritar gehienetara iristeko. Guztira 27 herritarrek erantzun dute galdetegia.

2.4 HERRITARREN PARTE HARTZE SAIOA:

Herritarrekin parte hartze saio bat egin da. 9 herritarrek hartu dute parte bertan. Saioaren helburua izan da diagnostikoa osatzea eta plana diseinatzeko gakoak jasotzea. Honakoa izan da saioaren metodologia:

- UEMaren aurkezpena eta prozesuaren nondik norakoak, labur.
- Diagnostikoa partekatzea.
- Galdetegitik ustiatutako emaitzak eta irudikatutako erronkak partekatzea.

- Erronka horiek kontrastatzea eta iritzia jasotzea.
- Hurrengo pausoen azalena: jasotako ideiak txukundu eta ekarpenak kontuan hartuta osatuko dugu plan estrategikoa.

2.5 AROA PLANA DISEINATZEA:

UEMAko teknikariak txosten zirriborroa osatu du eta Talde Eragileari aurkeztu dio. Gainera, parte hartze prozesuan parte hartu dutenei ekarpenak egiteko aukera eman zaie. Behin ekarpenak jasota, azken txosten hau osatu da.

3 DIAGNOSTIKOA

Diagnostikoa, honako informazio hau bildu da:

- Anoetako datu demografiko eta sozioekonomikoak.
- Anoetako datu soziolinguistikoak.
- Ikus-entzunezkoen kontsumoa udalerri euskaldunetan. Anoetako datuak.
- Herritarren iritzia Anoetan euskarak duen egoerari buruz.
- 2020-2023ko ESEParen balorazio kualitatiboa.

3.1 ANOETAKO DATU DEMOGRAFIKOAK ETA EKONOMIKOAK

Azken datuen arabera (2024/01/01), Anoetak 2.114 biztanle ditu. Datuen bilakaerari erreparatuta eta 2011tik azken datuotara arte jaitsiera antzematen bada ere, 1991tik hona biztanleria hazi egin da.

1. taula: Anoetako biztanleria (1900-2021)

1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981	1991	2001	2011	2021
329	316	322	384	381	436	598	1043	1702	1795	1728	1832	2086

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMAK landua

Adin taldeka aztertuta, datuek erakusten dutenez adin-talde batzuk hazi eta beste batzuk txikitu egin dira Anoetan. Honakoak dira aldaketa nabarmenenak: 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren kopurua 7,5 puntu jaitsi da, eta 30 eta 44 urte bitartekoa 2,9 puntu. 60 eta 74 urte arteko biztanleria % 6,8 hazi da, eta 75etik gorakoena 2,7 puntu.

Edonola ere, zahartze-indizea baxua du Anoetak Euskal Herriko, udalerri euskaldunetako zein nagusitasunik gabeko udalerri euskaldunetako zahartze-indizeen aldean.

2. taula: Anoetako biztanleria, adinaren arabera (2011-2021)

	0-14		15-29		30-44		45-59		60-74		75-...	
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%
2001	289	16,3	386	21,7	442	24,9	387	21,8	184	10,3	90	5,1
2011	313	17,1	278	15,2	455	24,8	433	23,6	228	12,4	125	6,8
2021	364	17,4	297	14,2	458	22,0	449	21,5	356	17,1	162	7,8

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMAK landua

3. Taula: Anoetako zahartze-indizea (2021, %)

Anoeta	Nagusitasunik gabeko udalerri euskaldunak	Udalerri euskaldunak	Hego Euskal Herria
99	145	145	161

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMak landua

Bestalde, biztanleriaren jatorriari erreparatuta, hau da bilakaera: herrian bertan jaiotakoen ehunekoak gora egin du (% 3,6), Hego Euskal Herrian jaiotakoen kopurua mantendu egin da, eta atzerrian jaiotakoen kopuruak gora egin du (% 2,6).

4. taula: Biztanleriaren jatorria (2001-2021)

	Udalerria			Hego Euskal Herria			Besteak		
	2001	2011	2021	2001	2011	2021	2001	2011	2021
Anoeta	30,5	33,7	34,1	54,3	50,9	48,1	15,2	15,4	17,8
Nagusitasunik gabeko ud	50,8	48,2	47,4	36,0	35,5	34,6	13,3	16,3	18,0
Udalerri euskaldunak	50,3	47,1	45,8	37,2	37,5	37,1	12,5	15,5	17,1

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMak landua

Xeheago aztertuz eta barne-migrazioei erreparatuz gero, herritarren gehien-gehiengoa Donostialdetik datorrela erakusten dute datuek, eta bigarren mailan, Tolosaldeetik:

5. taula: Hego Euskal Herrian jaiotako biztanleriaren jatorria udalerrian (2001-2021)

	2001	2011	2021
Añana	1	1	1
Arabako Errioxa	1	0	0
Arabako Kantaurialdea	1	0	0
Arabako Lautada	0	3	1
Arabako Mendialdea	0	0	0
Arratia-Nerbioi	0	0	2
Bidasoa Beherea	1	2	3
Bilbo Handia	2	5	9
Debabarrena	9	14	9
Debagoiena	3	3	2
Donostialdea	236	283	314
Durangaldea	5	4	3
Enkartzioak	1	0	0
Gernika-Bermeo	4	3	3
Goierri	24	31	50
Gorbeialdea	0	0	0
Markina-Ondarroa	1	3	4
Plentzia-Mungia	0	0	0
Tolosaldea	572	529	552
Urola Kosta	21	22	28
Nafarroa	40	29	34

Iturria: Eustat, Biztanleriaren udal-eroldaren estatistika. UEMak landua

Kanpo-migrazioei dagokionez, aldaketa gertatzen ari da: Espainiako Estatuan jaiotako biztanleen kopurua jaisten ari da, eta beste jatorri batzuetako biztanleria, hazten. Hona atzerriko biztanleria, ehunekotan, kontinentearen arabera:

6. taula: Atzerrian jaiotako biztanleria, kontinentearen arabera (2021, %)

Europa	Afrika	Amerika	Asia	Ozeania
29,0	33,0	34,0	3,5	0,5

Iturria: INE, Biztanleriaren zentsuak. UEMAK landua

Azkenik, datu ekonomikoei dagokienez, Anoetako enplegu-tasa % 58,0koa da, eta langabezia-tasa % 7,1ekoa (2023 urtea). Horrez gain, bataz besteko errenta pertsonala 23.878 eurokoa da. Anoetako jarduera ekonomikoa zerbitzuen sektorera dago bideratuta nagusiki; BEGren % 48,5 dagokio aipatutako sektoreari. Bigarren postuan dago industria sektorea (% 38,7); hirugarrenean eraikuntza (% 12) eta nekazaritza eta abeltzaintza sektorea (% 0,4) laugarrenean.

3.2 ANOETAKO DATU SOZIOLOGIKOAK

Anoetako biztanleek euskaraz hitz egiteko edo euskaraz ulertzeko gaitasunik duten neurtzen du euskararen ezagutzaren aldagaiak. Ezagutzari dagokionez, hiru tipologia bereizten dira: euskaldunak, hau da, euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gai direnak; ia euskaldunak, euskaraz ulertzeko bai, baina hitz egiteko gaitasunik ez dutenak; eta erdaldunak, euskal ulertzeko ere gai ez direnak. Gaur-gaurkoz, azken datuen (2021) arabera, Anoetako biztanleen % 71,2 da euskalduna, % 14,3 ia euskalduna eta % 14,5 erdalduna. Datuen bilakaerari erreparatuz gero, azken 40 urteotan euskararen ezagutza igo egin da (% 15,9). Hemen datuak:

7. taula: Anoetako euskararen ezagutza datuak (1981-2021)

	Biztanleak	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1981	1663	920	55,3	239	14,4	504	30,3
1991	1759	1192	67,8	303	17,2	264	15,0
2001	1652	1212	73,4	245	14,8	195	11,8
2011	1767	1258	71,2	292	16,5	217	12,3
2021	2068	1473	71,2	295	14,3	300	14,5

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

Alabaina, bestelako udalerri mailako datu soziolinguistikoek aldaketa handiago baten zantzuak adierazten dute: hiztun-tipologiaren aldaketa, hain justu. Lehen hizkuntza datuei erreparatuz gero -hiztunak umetan zein hizkuntza jaso duen, alegia-, agerian da azken 30 urteetan euskara lehen hizkuntza izan duten herritarren kopurua 7,4 puntu jaitsi dela. Gaur gaurkoz, Anoetako hiztunen % 52,7k jasotzen du euskara soilik etxean, % 8,5ek euskara eta gaztelania, % 33,2k gaztelania eta % 5,7k beste hizkuntza bat. Hona datuak:

8. taula: Anoetako lehen hizkuntza datuak (1981-2021)

	Biztanleak	Euskara		Biak		Gaztelania		Beste bat	
		Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
1991	1801	1083	60,1	84	4,7	628	34,9	6	0,3
2001	1709	1066	62,4	82	4,8	537	31,4	24	1,4
2011	1836	1026	55,9	143	7,8	618	33,7	49	2,7
2021	2112	1112	52,7	179	8,5	701	33,2	120	5,7

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

Ondorioz, etxeko erabilera datuek ere behera egin dute azken urteotan: 30 urtean 10,6 puntu gutxitu da euskararen erabilera. 2021eko neurketaren arabera, Anoetarren % 40,3k darabil euskara etxean, % 19,0k bi hizkuntzak, % 37,1ek gaztelania eta %3,6k beste hizkuntza bat.

9. taula: Anoetako herritarren etxeko erabilera (1981-2021)

	Biztanleak	Euskara		Biak		Gaztelania		Beste bat	
		Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
1991	1801	917	50,9	272	15,1	612	34,0	0	0,0
2001	1709	887	51,9	286	16,7	532	31,1	4	0,2
2011	1836	852	46,4	283	15,4	666	36,3	35	1,9
2021	2112	852	40,3	401	19,0	784	37,1	75	3,6


Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

Bestela esanda, Anoetako biztanleen gero eta kopuru esanguratsuago batek euskara ez den beste hizkuntza bat dakar etxetik, eta ostean ikasi du euskara (eskolan edo nagusitan).

Azkenik, kale-erabilerari erreparatuta, azken datuek (2021) adierazten dute nagusitasunik gabeko udalerrria dela Anoeta; izan ere, herritarren % 72,6ak darabil euskara kalean, hau da, 2017an baino %12,2k gutxiago.

Adin-tarteka xehetuz gero, igoera adin-talde guztietan agertzen da 2001etik 2021era. Helduen (25-64 urte) erabileran izan da alderik handiena, %23,3 puntu igo da datua; ondoren, gazteena (15-24 urte), %17,2; jarrian, adinekoena (65+) 7,4 puntu, eta, azkenik, haurrena (0-14 urte), %4,6.

10. grafikoa: Euskararen kale erabileraren bilakaera, adinaren arabera (2001-2021)



Iturria: Kale erabileraren neurketa UEMA eta Soziolinguistika klusterra

3.3. IKUS-ETZUNEZKOEN KONTSUMOA UDALERRI EUSKALDUNETAN. UDALERRIKO EMAITZAK: ANOETA.

Ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko inkesta egin zuen UEMAK 2022an ume eta gazteen artean. 10-18 urteko herritarrek bete zituzten galdetegiak, batik bat ikastetxeen bidez, Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik eta Batxilergoko bigarren mailara. Bi galdetegi erabili ziren datuak jasotzeko: bat, Lehen Hezkuntzan, laugarren mailatik seigarrenera; bestea, DBHn eta Batxilergoan. Guztira 11.600 bildu ziren UEMako herrietan, eta Anoetan bertan 50 Lehen Hezkuntzan eta 102 Batxilergoan (akatsak zituztenak baztertuta).

Parte hartu duten ikasleen hizkuntza ezaugarriak

Herritarrek umetan jasotako hizkuntza; oro har, etxeko hizkuntza izaten da, gurasoetatik seme-alabetara transmititzen dena (ama-hizkuntza ere esaten zaio).

Lehen hizkuntza

	Euskara	Euskara eta gaztelania	Gaztelania	Beste bat
LH	64,0	10,0	14,0	12,0
BH	55,9	18,6	13,7	11,8

Erraztasun erlatiboa

Hizkuntzaren erabilerari dagokionez, aldagai garrantzitsua da erraztasun erlatiboarena; alegia, hiztunak zein hizkuntzatan egiten duten errazen, zein zaion hizkuntza erosoagoa. Izan ere, euskara jakitetik harago, erraztasuna giltzarria da erabiltzeko. Maiz lehen hizkuntzarekin lotua egoten da.

	Euskaraz errazago	Euskaraz edo gaztelaniaz berdin	Gaztelaniaz errazago
LH	64,0	26,0	10,0
BH	55,9	19,6	24,5

Ohiko erabilera

Hizkuntzaren erabilera aztertu da ikasleen ohiko eremuak kontuan hartuta. Erabilera tasa esleitu jaso da ondorengo taulan: ikasleek adierazi dute ohiko hizkuntza zein duten bost eremu horietan eta, horietan oinarrituta, erabilera tasak kalkulatu dira. Honako hauek dira udalerriko emaitzak:

	Etxean	Ikasgelan	Ikaskideak gelatik kanpo	Lagunak	Eskolaz kanpoko ekintzak
LH	69,5	87,5	74,5	72,5	71,5
BH	66,9	85,0	76,5	71,1	73,5

Txateko hizkuntza

Hizkuntzaren erabilera jada ez da mugatzen aurrez aurreko ahozko jardunera: gero eta garrantzi handiagoa du sare sozialen bidezko harremanak ere, ahozkoak eta idatzizkoak. DBHko eta Batxilergoko ikasleei galdetu zaie txatez nola aritzen diren etxekoekin, ikaskideekin eta lagunekin.

	Etxekoak	Ikaskideak	Lagunak
BH	69,1	80,4	69,1

Lehen Hezkuntzan ere galdetu da txatari buruz, baina modu orokorragoan, norekioa zehaztu gabe.

	Euskaraz	Euskaraz eta erdaraz	Gaztelaniaz	Beste hizkuntza bat	Txatean ez da ibiltzen
LH	64,0	24,0	0,0	0,0	12,0

Sakelako telefonoaren erabilera

Ikus-entzunezkoen kontsumoarekin lotuta, bada kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsu bat: sakelako telefonoaren erabilera. Lehen Hezkuntzako ikasleei galdetu zai horri buruz, alegia, sakelako telefonorik ba ote daukaten edo erabilen ote duten. Hauek dira herriko datuak:

	Ikasleak bere telefonoa du	Gurasoena erabiltzen du	Ez du erabiltzen
LH	34,0	48,0	18,0

Telebista

Ikus-entzunezkoen kontsumoa aztertzeko, lehenik eta behin telebista kateei erreparatu zaie. Ohiko kontsumoa hartu da aztergai, eta, horretarako, galdetu zaie azken hiru egunetan zein kate ikusi dituzten – askok kate bat baino gehiago ikusi dute, eta, beraz, kate guztien kontsumoaren batura %100 baino handiagoa da: portzentajeak adierazten du zenbat ikaslek ikusi duten kate bakoitza-.

LEHEN HEZKUNTZA					
ETB1	ETB3	Euskarazko toki TBak	ETB2	Antena 3	Cuatro
44,0	4,0	28,0	12,0	6,0	6,0
Telecinco	La Sexta	Clan	Disney	Boing	Nickelodeon
2,0	6,0	40,0	12,0	18,0	4,0
Neox	Dmax	TDP	Energy	GolTV	Divinity
22,0	4,0	2,0	12,0	2,0	0,0
FDF	Fox	24H	Trece	Dkiss	Batere ez
8,0	0,0	2,0	4,0	0,0	6,0

BIGARREN HEZKUNTZA					
ETB1	ETB3	Euskarazko toki TBak	ETB2	Antena 3	Cuatro
26,5	9,8	1,0	15,7	15,7	20,6
Telecinco	La Sexta	Clan	Disney	Boing	Nickelodeon
25,5	9,8	11,8	2,0	5,9	0,0
Neox	Dmax	TDP	Energy	GolTV	Divinity
23,5	16,7	3,9	13,7	6,9	7,8
FDF	Fox	24H	Trece	Dkiss	AXN
27,5	1,0	2,9	0,0	0,0	0,0
BBC	BeMad	Blaze	Cocina	Comedy	Cosmo
0,0	0,0	1,0	0,0	1,0	0,0
Dark	Dcasa	Discovery	Eurosport	Historia	Real Madrid
0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
National G.	Mega	Ten	TNT	Batere ez	
0,0	12,7	1,0	1,0	18,6	

Plataformak

Ikus-entzunezko plataformen kontsumoa ere gisa berean aztertu da: ikasleetatik zenbatek erabili duen bakoitza azken hiru egunean – beraz, plataforma horietara sarbidea izatetik harago, ohiko kontsumoa aztertu da-. Ikasle batzuek plataforma bat baino gehiago erabiltzen dituzte, eta, horrenbestez, plataforma guztien kontsumoaren batura %100 baino handiagoa da. Hona emaitzak:

LEHEN HEZKUNTZA						
Netflix	Disney+	Movistar+	Amazon	AppleTV	Nahieran	HBO
46,0	14,0	10,0	42,0	4,0	12,0	6,0
RakutenTV	Starzplay	Fubo	Mitele	Filmin	Batere ez	
2,0	0,0	4,0	0,0	2,0	22,0	

BIGARREN HEZKUNTZA						
Netflix	Disney+	Movistar+	Amazon	AppleTV	Nahieran	HBO
63,7	13,7	14,7	32,4	2,9	4,9	6,9
RakutenTV	Starzplay	Fubo	Mitele	Filmin	Batere ez	
2,0	0,0	2,0	4,9	1,0	26,5	

Serieen hizkuntza

Ikus-entzunezkoen kontsumoa hori zein hizkuntzatakoa da? Telebista kateak eta plataformak aintzat hartuta, galdetu zaie zien hizkuntzatan ikusi duten azken seriea edo marrazki biziduna. Ondorioak:

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Beste bat	Ez du ikusten
LH	26,0	72,0	0,0	0,0	2,0
BH	7,8	68,6	8,8	6,9	7,8

Sare sozialak

Ikus-entzunezkoen kontsumoa ezin da mugatu telebistara edo plataformetara: sare sozialek ere pisu nabarmena dute gaztetxoan egunerokoan, eta ikus-entzunezko jarduna dago horren oinarrian ere. Hortaz, aztergai hartu da sare sozialen erabilera eta horietako hizkuntza-jarduna. Lehenik, galdetu zaie zein sare sozial erabili ohi dituzten – bat baino gehiago aukeratu dituzte batzuek- Emaizak:

LEHEN HEZKUNTZA				
Facebook	Googlechat	Instagram	Snapchat	Telegram
4,0	0,0	10,0	28,0	0,0
Tiktok	Twitch	Twitter	Whatsapp	Youtube
60,0	16,0	2,0	48,0	80,0

BIGARREN HEZKUNTZA				
Facebook	Googlechat	Instagram	Snapchat	Telegram
2,9	0,0	82,4	50,0	3,9
Tiktok	Twitch	Twitter	Whatsapp	Youtube
76,5	43,1	18,6	93,1	90,2

Instagram

Bereziki erreparatu zaie hedapen handieneko sare sozialei, horietako jarduna hobeto aztertze aldera. Instagramen argazkiak eta bideoak ikusi eta igo daitezke, posten bitartez

edo storyak sortuta. Lehenik, galdetu zaie egunean batez beste zenbat denbora pasatu ohi duten Instagram sare sozialean.

	> 2 ordu	1-2 ordu	½ - 1 ordu	15-30 minutu	<15 minutu	Batere ez
LH	0,0	2,0	2,0	6,0	12,0	78,0
BH	11,8	2,0	26,5	17,6	10,8	17,6

Bigarrenik, sorkuntzari buruz galdetu zaie: zein hizkuntzatako edukiak jartzen dituzten Instagramen.

	Euskaraz beti	Euskaraz gehien	Gaztelaniaz beti	Gaztelaniaz gehien	Euskaraz eta gaztelaniaz	Beste batean beti	Beste batean gehienetan	Edukirik ez dut igotzen
LH	6,0	2,0	6,0	2,0	2,0	0,0	0,0	82,0
BH	6,9	14,7	13,7	13,7	13,7	1,0	0,0	36,3

Youtube

Interneten bideoak partekatzeko webgunea da Youtube, hedapen handikoa. Sare sozial gisa hartu da azterketa honetan. Batetik, aztertu da ikasleek egunean batez beste zenbat denbora ematen duten.

	> 2 ordu	1-2 ordu	½ - 1 ordu	15-30 minutu	<15 minutu	Batere ez
LH	2,0	22,0	32,0	16,0	22,0	6,0
BH	12,7	27,5	25,5	18,6	26,0	3,9

Denbora hori zer hizkuntzatako bideoei eskaintzen dieten batez ere, hona udalerriko emaitzak:

	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Youtube erabiltzen
LH	6,0	54,0	0,0	28,0	0,0	6,0	6,0
BH	1,0	71,6	2,9	8,8	0,0	11,8	3,9

Twitch

Sare sozial honetan zein hizkuntzatako kontuak jarraitzen dituzten ikasleek, hau da herriko egoera:

	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Twitch erabiltzen
LH	2,0	18,0	2,0	4,0	0,0	0,0	74,0
BH	0,0	42,2	0,0	0,0	0,0	4,9	52,9

Twitchen ezer argitaratuz gero zein hizkuntzatan egiten duten ikasleek eurek, hona hemen emaitza:

	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Twitchera ezer igotzen
LH	4,0	14,0	2,0	0,0	0,0	0,0	80,0
BH	2,9	39,2	0,0	1,0	0,0	2,0	54,9

Tiktok

Bideo laburrak partekatzeko sare soziala da Tiktok, eta, aurrekoen ildotik, erreparatu zaio ikasleek zenbat denbora igarotzen duten Tiktoken batez beste, eta zer hizkuntzatan ikusten eta egiten duten.

	> 2 ordu	1-2 ordu	½ - 1 ordu	15-30 minutu	<15 minutu	Batere ez
LH	2,0	10,0	26,0	18,0	16,0	28,0
BH	29,4	23,5	18,6	5,9	2,9	19,6

Tiktok sare sozialean zein hizkuntzatako bideoak ikusten dituzten, emaitza hau eman dute ikasleek:

	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du Tiktok erabiltzen
LH	2,0	48,0	6,0	10,0	0,0	4,0	30,0
BH	0,0	54,9	2,9	3,9	1,0	17,6	19,6

Eta ikasleek eurek zein hizkuntzatan igotzen dituzten bideoak Tiktokera, hauexek dira emaitzak:

	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere ingelesez	Berdintsu euskaraz eta gaztelaniaz	Berdintsu euskaraz eta ingelesez	Berdintsu ingelesez eta gaztelaniaz	Ez du ezer igotzen Tiktokera
LH	2,0	22,0	2,0	2,0	0,0	0,0	72,0
BH	0,0	14,7	0,0	2,9	0,0	1,0	81,4

Musika

Ikus-entzunezkoen kontsumoarekin lotuta, musikarena ere aztertu da inkestan. Lehenik, euskarriei buruz galdetu zaie. Aukera bat baino gehiago egin ahal izan dituzte, eta, beraz, euskarri guztien baturak %100 baino gehiago ematen du emaitza. Hona hemen udalerriko datuak:

	Youtube	Internetetik jaitsi	Spotify	Kontzertuak	Diskoak	Besterik
LH	80,0	10,0	58,0	18,0	16,0	2,0
BH	73,5	17,6	75,5	9,8	14,7	2,9

Musika entzunaldi horietan zein hizkuntza den nagusi, honako emaitza hau eman dute galdetegiak:

	Beti euskaraz	Beti gaztelaniaz	Beti beste hizkuntzetan	Batez ere euskaraz	Batez ere gaztelaniaz	Batez ere beste hizkuntzetan	Berdin euskaraz eta bestetan
LH	10,0	4,0	2,0	14,0	20,0	12,0	38,0
BH	2,9	13,7	3,9	5,9	28,4	21,6	23,5

Bideo jokoak

Azkenik, bideo jokoen kontsumoa hartu da aztergai, horiek ere ikus-entzunezko edukiak direla aintzat hartuta. Batetik, bideo jokoen erabilerari begiratu zaio, eguneko batez besteko denborarekin:

	> 2 ordu	1-2 ordu	½ - 1 ordu	15-30 minutu	<15 minutu	Batere ez
LH	10,0	16,0	20,0	8,0	26,0	20,0
BH	16,7	14,7	18,6	11,8	9,8	28,4


Bigarrenik, galdetu da bideo jokoen hizkuntza zein den. Hona hemen herriko ikasleen erantzunak:

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Beste hizkuntzak	Bideo jokorik ez
LH	12,0	64,0	24,0	2,0	20,0
BH	1,0	54,9	16,7	1,0	28,4


3.3 HERRITARREN IRITZIA EUSKARAK DUEN EGOERARI BURUZ

Herritarren iritzia jasotzeko, galdetegi bat zabaldu zen herrian, eta 27 pertsonak erantzun dute. Erantzule gehienek 41 eta 64 urte bitartean (% 51,9) eta 26 eta 40 urte bitartean dituzte (% 33,3), eta emakumeak (% 74,1) dira gehienak eta guztiek dute euskara maila ona.

11. Grafikoa: Galdetegiaren erantzunak, adinaren arabera




12. Grafikoa: Galdetegiaren erantzunak, generoaren arabera



Anoetako egoerari buruz egiten den diagnostikoan ez dago iritzi bateraturik. Partaideen % 51,9ak euskararen erabilera behera egin duela uste du, baina % 44,4ak uste du erabilera mantendu egin dela. %3,7ak uste du, berriz, jaitsi egin dela euskararen erabilera.

13. Grafikoa: Azken urte hauetan, zure ustez, Anoetarren euskararen erabilera...



Aurreko erantzuna zertan oinarritzen duten galdetzerakoan honako arrazoiak eman dira nagusiki:

- 1) Ume edo gazteek geroztu eta gehiago erabiltzen dutelako erdara.
- 2) Kanean, dendetan, lagun-giroan gaztelania geroztu eta gehiago erabiltzen delako.

Azkenik, beste hiru galdera egin zitzaizkien: zein arlotan ikusten duten euskararen erabilera indartsuen, zeinetan ahulen, eta zeinetan eragin beharko litzatekeen haien ustez. Hona hemen gehien errepikatutako erantzunak:

Zein arlo dira indartsuenak?	Zein arlo dira ahulenak?
Eskolan (% 85,2)	Sare sozialak (% 66,7)
Kultura eskaintzan (% 66,7)	Ostalaritzan (% 48,1)
Familian (% 51,9)	Gurasoen artean (% 37,0)
Haurren artean (% 40,7)	Lan harremanetan (% 29,6)
Zure ustez, zein arlotan eragin beharko litzateke?	
1. Haur eta nerabeen hizkuntza ohituretan. 2. Etorri berrien harrera eta integrazioan. 3. Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuetan. 4. Ostalaritza eta merkataritzan. 5. Euskararekiko sentsibilizazioan.	

Informazio horrez gain, iritzi hauek jaso dira galdetegian:

- *Gu etorri berriak gara, Lasarbera. Izututa nago: bizilagunen %90a edo izango gara euskaradunak, eta beste ehuneko batek euskaraz ulertzen du. Gauzak horrela, gure arteko komunitateko bilerak euskaraz egin beharrean, 40 bizilagun orotara, gaztekeraz egin behar ditugu, administrazioak euskaraz ez dakielako. Okerrena bertako hainbat bizilagunek euskararekiko erakutsi duten begirune eza da. Ez dira haurrak, helduak dira, euskarari muzin eginez.*
- Arazo bat dago, talde batean erdaldun giroko bat baldin badago, erdarara jotzen dugu berak euskaraz egin beharrean. Arazoa gurea da, euskaraz dakigunona. Ikastolan dabilen ume/gazte batek ez du arazorik izan behar euskaraz hitz egiteko.

- Eragin beharreko arloetan, gurasoen ardura aipatuko nuke, ez bait da nahikoa umeari euskaraz zuzentzea ondoren guraso taldean edota bikotean erdaraz egiten bada.

Parte hartze saioan ere, galdetegian ateratako emaitzak partekatu eta kontrastatu dira. Bertaratutako partaideak ados agertu dira aurkeztutako emaitzekin.

3.4 ORAIN ARTEKO PLANGINTZAREN BALORAZIO KUALITATIBOA

- Familia transmisioa

Euskara transmititzearen garrantziaz kontzientziatzeko hainbat ekintza egin dira, hala nola UEMAren Hedatu hezkuntza-proiektuaren baitako gurasoen tailerra eta Ispiluari Begira tailerra. Horrez gain, eskolako aurrematrikulazioan gurasoen hizkuntza-profila jaso da urtero, guraso-tipologien berri izateko.

Haurrak udalean inskribatzerakoan gurasoei hizkuntzaren transmisioaren garrantziaz jabetzeko gutuna eta autorako pegatina ematen zaie.

3.4.1 Irakaskuntza

UEMAren bidez, hainbat formazio eskaini dira irakasleentzako, gurasoentzako, eta ikasleentzako. Ikasleekin Ispiluari begira eta Bixitailerrak tailerrak egin da. Ikasleekin lantzeko materiala ere eskaini zaio eskolari, ikasleekin kontzientziazio soziolinguistikoa lantzeko.

Irakasleei eta jantokiko hezitzaileei gelan eta jolastorduan euskarari eusteko estrategien inguruko saioak eskaini zaizkie, eta azkenik, gurasoei seme-alaben hizkuntza ohituretan eragiteko tailerra eman zaie.

3.4.2 Euskalduntzea

Anoetako Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak eskaintzen ditu, eta herrian bertan euskara ikasteko aukera dago taldea osatzen denean. Bestalde, bizilagun berrientzako harrera esku-orriak daude sortuta hainbat hizkuntzatan, eta bertan euskararen garrantziaz eta ikasteko dauden aukerez azalpenak ematen dira.

3.4.3 Herritarrak

Kontzientziazioan eta ahalduentzean eragiteko hainbat kanpaina, hitzaldi, eta emanaldi egin dira. Tartean izan dira Bizkarsororen emanaldia, Arnasetik bideo sormen lehiaketa, errenta aitortpenaren kanpaina eta “Egin nirekin ere euskaraz” kanpaina.

Horrez gain, Euskara eta Kulturartekotasuna hezkuntza komunitatean proiektua martxan jarri da, euskarak hezkuntza komunitatearen hizkuntza izaten jarrai dezan, eta, era berean, familien oinarritzko ulermena bermatu eta kulturartekotasuna eta parte hartzea sustatzeko.

3.4.4 Merkataritza eta ostalaritza

Herriko ostalaritza erdaldundu egin da azken urteotan, eta euskaraz ez dakien gero eta langile gehiago dago. UEMAk bi kanpaina egiten ditu urtero sektorean euskararen erabilera sustatzeko, eta itzulpen zerbitzua ere eskaintzen die establezimenduei.

3.4.5 Aisia eta kirola

Udan izan ohi diren udalekuetarako aisialdiko hezitzaileentzako tailerra eskaini da hizkuntza irizpideen berri eman eta eurek eredu izateak duen garrantziaz jabetzeko. Horrez gain Anoetako gaztetxoei Salto! Udalekuetan parte hartzeko aukera eskaini zaie.

3.4.6 Administrazioa

Udal barruko euskararen erabilera areagotzeko plana du Anoetako Udalak, eta urtean hirutan egiten zaio jarraipena. Udal hautetsiei sentsibilizazio saioa eman zaie eta trebakuntza eskaini zaie udal langileei.

4 AROA 2024-2034

4.1 NAHI ESTRATEGIKOA, MISIOA ETA IKUSPEGIA

4.1.1 MISIOA

Anoetan euskal hiztun kontziente eta aktiboak dituen herria izatea, euskararen erabilera handitzeko.

4.1.2 NAHI ESTRATEGIKOA

Anoetako eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datozen urteetarako, euskal hiztunak aktibatu eta ahalduntzeko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko eta Anoeta euskaldunago, justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzeko.

4.1.3 IKUSPEGIA

- Anoetan euskararen transmisioa bermatuko da.
- Euskararen ezagutza eta erabilera areagotu egingo dira.
- Hizkuntza portaera kontzienteak dituen euskal komunitate bizi eta indartsu bat izango dugu.
- Euskal hiztun aktibo gehiago izango ditugu Anoetako gizarte esparru guztietan.
- Euskara bihurtuko da Anoetako komunitateko kide izateko bidea.

4.2 Ardatz estrategikoak, erronkak, lan ildoak

MAILA	UDAL ETA GARAPEN AGENTZIEN ESKUMENeko ZERREDA SAILKAPENA	Arduraduna(k)
ARDATZ ESTRATEGIKOA	GOBERNANTZA	
ERRONKA	G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.	
Lan-ildoak	G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.	
Ekimena	G.1.2.1. EAEko eta Nafarroako administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu.	
Ekintza	Udalarekin elkarlanean aritu AROA planaren jarraipena egiteko	Udala-UEMA
Ekimena	G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.	
Ekintza	Euskara Batzordea indartu: udalak lidergotza hartu, eta herriko euskalgintzako eragileekin koordinatu eta elkarlanerako ildoak zehaztu.	Udala-UEMA-euskalgintza
Lan-ildoak	G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.	
Ekimena	G.1.3.2. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredugarriak adostu eta gauzatu.	
Ekintza	Arduradun politiko eta teknikoekin euskararen inguruko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa landu.	Udala-UEMA
Ekimena	G.1.3.3. Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu.	
Ekintza	Udalaren Erabilera Plana bete	Udala-UEMA
Ekintza	Plan eta proiektuen jarraipena egin, eta ELE egingo zaiela ziurtatu.	Udala-UEMA
ERRONKA	G.2. Berriarazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.	
Lan-ildoak	G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.	
Ekimena	G.2.3.4 Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio-esparruak zabaltuz.	
Ekintza	Ikastetxeekin etengabeko harremana izan, euskararen erabilera sustatzeko dituzten behar eta hutsuneei erantzuteko eta estrategiak elkarrekin lantzeko.	Udala-UEMA

ARDATZ ESTRATEGIK OA	JARRERA / MOTIBAZIOA	
ERRONKA	JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.	
Lan-ildoak	JM.1.2. Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.	
Ekimena	JM.1.2.1. Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu.	
Ekintza	Lehen hitza euskaraz egiteko kanpainak sustatu: Egin Nirekin euskaraz...	Udala-UEMA
Ekintza	Gizartea aktibatzeke ekimenak lagundu (Euskaraldia, Korrika)	Udala-UEMA
Lan-ildoak	JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.	
Ekimena	JM.1.3.2. Ahalduntze-prozesuak sortu eta dinamizatu.	
Ekintza	UEMAren HEDATU proiektuaren bidez, ikastetxean formazioak eman irakasle, guraso eta haurrentzat, besteak beste arnaguneen eta hizkuntza jarrearen inguruko sentsibilizazioa lantzeko.	UEMA
Ekintza	UEMAren Salto! Udaleku ibiltaria antolatzen jarraitu.	UEMA
Ekintza	Arnaguneen eta udalerri euskaldunen errealitatearen eta garrantziaren gaineko kontzientziazioa landu	UEMA
Ekintza	Herritar euskaldunak ahalduntzeko eta kontzientziazitzeko egitasmoak abiatu: Arnasa Gara, Euskararen egoera ikusarazteko herri mailako kanpainak (erasoak, egoera...), euskaldun, erreferenteak ezagutarazi, euskara prestijiatu...	UEMA
ERRONKA	JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.	
Ekimena	JM.2.2.5. Euskarak eta euskal kulturak duten nortasun propioaren indarra baliatu eta erakutsi.	
Ekintza	Bisitariet euskararen berri emateko eta euskara partekatzerak animatzeko lanketak egin.	Udala-UEMA
Ekintza	Bisitarien guneetan euskarari buruzko informazioa, herriko euskara, historia... eskaini. Euskara herriko ondare inmateriala dela nabarmendu.	Udala-UEMA
Lan-ildoak	JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrek euskarara erakarri.	
Ekimena	JM.2.4.1. Euskaratik urrun daudenen pertzepzioetan sakondu.	
Ekintza	Erdaldunei euskararen inguruko saiok eskaini, hizkuntza aniztasunari, euskararen egoerari eta arnaguneen garrantziari buruzko informazioa jaso dezaten eta euskararekin duten harremanari buruz hitz egin dezaten, aurrera begira baliabideak eta tresnak eskaintzeko.	UEMA
Ekimena	JM.2.4.4. Atzerritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.	

Ekintza	Etorri berriei hizkuntza harrera egiteko ibilbidea eta baliabideak eskaini	Udala-UEMA
Ekintza	Eskolei harrera programak antolatze laguntza eskaini	Udala-UEMA
ARDATZ ESTRATEGIK OA	EZAGUTZA / GAITASUNA	
ERRONKA	EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.	
Lan-ildoak	EG.1.3. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.	
Ekimena	EG.1.3.2. Hezitzaile eta irakasleei euskal kulturaren eta praktika soziolinguistikoan inguruko prestakuntza, materialak eta praktika onak eskaini.	
Ekintza	Irakasleak eta hezitzaileak trebatu soziolinguistikan eta erabilera estrategietan	
Ekintza	Aisialdi, kirol eta kultura arloan estrategikoak diren elkarteei formazio soziolinguistikoa eman (begiraleak, entrenatzaileak...).	UEMA
ERRONKA	EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.	
Lan-ildoak	EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.	
Ekimena	EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharraren arabera eskaintzak sortu.	
Ekintza	Herrian taldea sortzeko laguntza eta baliabideak eskaini.	UEMA-Udala
Ekintza	Udalei dirulaguntzen inguruko ordenantza arautzen lagundu.	UEMA-Udala
Ekintza	Erdalduntzen ari diren lan eremuetan euskara ikastaroak emateko aukerak aztertu (ostalaritza, zaintza-lanak, arrantza...):euskarra zero, euskara plus	UEMA-Udala
ARDATZ ESTRATEGIK OA	ERABILERA / ELKARRERAGINA	
ERRONKA	EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.	
Lan-ildoak	EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu	
Ekimena	EE.1.1.1. Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi.	
Ekintza	Haurrei euskaraz egitearen garrantzia nabarmentzeko ekimenak martxan jarri	Udala-UEMA
Ekintza	Ikasleeen gurasoen hizkuntza profilak jaso, guraso eta familia tipologiaren berri izateko eta bilakaera aztertze.	UEMA
Ekintza	Abizenak euskalduntzeko kanpaina	UEMA

Ekimena	EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.	
Ekintza	Merkataritzan eta ostalaritzan, euskararen erabilera sustatzeko kanpaina egiten jarraitu: sentsibilizazioa (eskuorriak, mahai gainekoak) eta itzulpen zerbitzua eskaini	UEMA-Udala
	Merkataritzan eta ostalaritzan, euskararen erabilera sustatzeko: bezeroen eskaera aktibatu, eta udal tabernei klausulen betetze mailaren jarraipena egin, euskaraz egiten duten establezimenduak saritu.	Udala
Ekintza	Banketxeekin hitzarmenak egin eta horietan euskararen erabilera bermatu	UEMA
Ekintza	Aldian-aldean, anbulatorioko langileen hizkuntza ezagutzaren azterketa egin.	UEMA
Ekimena	EE.1.1.5. Aisialdi antolatuen eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.	
Ekintza	Euskarazko zinema emanaldiak lehenesteko lanketak egin	Udala-UEMA
	Udal gimnasioko erabilera handitu: paisaia, tailerrak, pertsona konketuengan eragin	
Ekintza	Herriko elkarteekin lanketak egin, herriko errealitate soziolinguistikoaz jabetzeko, hizkuntza irizpideak zehazteko eta hizkuntza kudeaketaren inguruko komunikazio formatuak adosteko	Udala-UEMA
Ekimena	EE.1.1.9. Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.	
Ekintza	Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina egin	Udala-UEMA
5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BERRIKUNTZA		
ERRONKA	B.1.Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu	
6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA		
ERRONKA	IS.1.Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.	
Ekintza	UEMAren ikerketak herriratu	UEMA
7. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA		
ERRONKA	KH.1.Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu	
Ekintza	UEMAk egiten duen lanaren berri eman eta hartzaile motaren arabera egokitu.	UEMA

